

SARRERA



Guk Maixa, Silvia, Beñat eta Hugo Pill Mind izeneko produktu bat sortu dugu. Klaseko kideak gara proiektu bat aurrera eramaten, gure ideia lantzeko gure inguruko arazoei erreparatu diogu eta konturatu gara egia dela zahartzen garen heinean, gure memoria galtzen goazela eta gure osasuna okertzen dela, beraz, gure naguseei bizitza erraztea pentsatu dugu pilula-ontzi adimentsua baten bidez.

Gure helburua pilulak hartu behar dituzten pertsonei baina arrazoi batzuegatik, esaterako; adinagatik, zeregin asko izategatik edo oso gaixorik egotegatik, erritmoari eustea zaila egiten zaien talde horri eguneroko bizitzan erraztasuna ematea da.

Alde batetik, gure produktuak arazo sozial garrantzitsu bati erantzuten dio: biztanleriaren zahartzea eta horrek dakartzan zaintza-beharrak. Horregatik, irtenbide erraza eta eraginkorra proposatzen du, teknologia erabiliz baina erabiltzailearentzat konplexutasunik gehitu gabe. Pilula-ontzi adimentsua, autonomia pertsonala sustatzen duena eta senideen edo zaintzaileen lan edo kekek murrizten laguntzen duena.

Hasierako ideia online saltzea da eta horretarako hornitzaileei produktuak erosiko dizkiogu ondoren saltzeko. Hori horrela izanda, gure bezero posibleak lortuko ditugu publizitatea edo ta osasun zentroekin akordio batetara ailegatuz ere, esaterako gure produktuen laginak eman, ondoren gaixoei etxera bueltatu behar dutenean erosi nahi duten edo ez aukeratzeko.

Horretarako webgune bat sortu dugu non gure produktuari buruzko informazioa eskainiko dugu eta online erosteko aukera emango du.

